



Hernaniko tabernari batzuk soluzioa bilatu diote Tabakoaren Aurkako Legeari

Berriak Elkarteak Hernaniko Tabernariekin adostuta, erretzaileentzako gunea jarriko du Kardaberaz kalean, tabernen inguruan. Horrez gain, herrian erretzailean aldeko plataforma sortu da.

URTARRILAREN 2tik aurrera ezingo da taberna, jatetxe, diskoteka eta bestelako erai-kin publikoetan erre. Hala dio onartzearen Tabakoaren Aurkako Legeak. Legeak bat baino gehiago jarri du urduri dagoeneko, eta Hernanin, zenbait herriar, ostalari eta elkarte hasi dira dagoeneko lanean. Helburua Tabakoaren Aurkako Legeari hutsune edo zirrikituak bilatzea da, eta batzuk bilatu dute legea ez betetzeko bidea.

Zenbait tabernetan, erretzeko aukera

Gipuzkoako Ostalari Elkarteak buruak adierazi duenez, Lege berri honekin kalte gehien jasango duen gremioetako bat izango da ostalariena, erretzaile ugarik tabernetara joateari utzi-ko diotela aurreikusitako baitute. Horri aurre egiteko asmotan, Hernaniko zenbait tabernari eta bezero elkartu egin dira, eta hala adostuta, euren tabernetan erretzea baimenduko dute. Hernaniko Aitan Etxe taberna da horietako bat, eta Bittorrek Kronikari adierazi dionez, ez dute legea bere horretan bete-ko: «Aitan Etxen eta Hernaniko beste lau-bost tabernetan erret-zea baimenduta egongo da urtarrilaren 2tik aurrera, guk hala erabakitak».

Hala ere, kontuan izan dute erabaki honek ondorioak izan ditzakeela, tartean isunak, eta horri aurre egiteko plan berezi bat jarriko dute martxan: «taberna hauetan erre nahi du-
nak euro bat gehiago ordaindu beharko du sartu-atera bakoit-
tzeko. Hala adostu dugu taber-
nari eta bezeroek elkarrekin
egin ditugun bileretan. Diru
hori kaja komun batera joango
da, eta noizbait tabernaren



Bittor, Aitan Etxe tabernako tabernaria.



Mertxe eta Iñigo, Berriak elkartearen eta tabernarien ordezkariak.



Erretzaileen duintasunaren aldeko taldea.

batek isunik jasoko balu, diru horretatik ordainduko litzateke. Kalkuluak egin ditugu, eta erretzea debekatzea baino askoz errentagarriagoa da».

Erretzaileentzako gunea, Kardaberaz kalean

Berriakek eta Elkarteko ostala-
riek erretzaileentzako gunea
jartzea erabaki dute Kar-
daberaz kalean. Egun, ogitarte-
koak, goxokiak, edariak eta
abar erosteko makinak dauden
lekua egokituko dute. Mertxe
Jimenez Berriakeko idazkariak
azaldu duenez, leku strategi-
koa da: «Hernaniko taberna
ugarik Kaxkoan daude, eta
giroa kale horietan izaten da.
Hortaz, leku perfektua da».

Erre-lekurako sarrera herna-
niantzat mugatua izango da,
eta bakoitza pertsona bat gehia-
gorekin sartu ahal izango da.
Sartzeko Berriakeko txartela
pasatzea beharrezkoa izango
da; horrela, adin gabekoei sar-
rera mugatuko diete. Horrez
gain, gaueko giroa mantentze
aldera, tabernetako edariekin
sartzea baimenduta egongo da,
eta orduka, taberna ezberdine-
tako musika entzun ahal izango
da bertan, guztiak tartekatuta.

Erretzaileen eskubideak aldarrikatzeko taldea

Hernaniko erretzaileengan ere
piztu du kezka Lege berriak eta
mugitzen hasiak dira: *Erre-
tzaileen duintasunaren alde!* tal-
dea sortu dute. Adierazi dute-
nez, «lege honekin erretzaileak
diskriminatuak sentitzen gara,
delinkuenteak bagina bezala
tratatzen gaituzte, onartezina
da. Guk ere baditugu eskubide-
ak, eta horren alde egingo dugu
borroka. Gaur firmak biltzen
ariko dira Kixkaleko ixkinean,
16:00etatik 20:00etara. ||

❖ BERRIAK

Kabalgatarako trajeak bihar banatuko dituzte

Errege kabalgatan laguntzaile
aterako diren umeei bihar
banatuko dizkiete jantziak:
Biterin, 18:00etatik aurrera ||

❖ ZERO ZABOR

Hernaniko konpostatzaileen 1go Topaketa, bihar

Hernaniko Zero Zabor taldeak
antolatuta, Hernaniko Kon-
postatzaileen 1go Topaketa
izango da bihar Biterin, 19:30-
etan hasita. Topaketan parte
hartzera gonbidatu dituzte nor-
bere etxeko baratza edo jardi-
netan konposta egiten dutenak
eta aurrera begira horretan
hasteko interesa daukatenak.
Tailer moduko topaketa izango
da, eta helburua da: konpost
egileek elkar ezagutzea, ba-
tzuek besteei dituzten *martin-
galak* azaltzea, egon litezkeen
arazo txikiei konponbideak
bilatzea, atzerriko esperien-
tzien berri jakitea, eta abar. ||

❖ SASKIBALDIA

Gabonetako Torneoko bigarren jardunaldia, gaur

Atzo hasi zen Hernaniko
Gabonetako Sakibalo Torne-
oa kiroldegian, eta Hernaniko
lau talde federatuak ari dira
parte hartzen. Gaurkoa da
bigarren eta azken jardun-
aldia, eta bi partida jokatu-
ko dira: 17:00etan kadete mai-
lakoak, eta 19:15etan, jubenil
eta seniorren artekoa. Horrez
gain, goizeko 11:00etan
minibasket-aren inguruan
mahaingurua egingo dute. ||

❖ KAROBI ELKARTEA

Ume jokoak eta txokolatada, gaur

Karobi elkarteak umeentzako
jokoak eta txokolada antolatu
ditu. Gaur izango da, arratsal-
deko 17:30etatik aurrera. ||



Ostegunetan egiten ari garen
hirugarren zozketan saritua
MAIDER SAGARNA
izan zen, eta
atzo jaso zuen Haizearen eskutik
irabazitako Roomba aspiragailu robota.



A B E N D U A N

ROOMBA aspiragailu robot bat zozketatuko dugu ASTERO:

BALANTXAN EROSKETA egiten dutenen artean, eta KIXKAL eta AKEIT tabernetan KAFEA hartzen dutenen artean

cenor **BALANTXA**
ELEKTROGAILUAK
Nagusia, 17 - ☎ 943 33 20 44



☎ **TELEFONAK** ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalarri anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Etxebeste** Elkano 2 - 943 552087 ● **Gauetz:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Hego haizeak tenperaturak igoko ditu, eta lainoak ugarituko dira gaur zeruetan. Aurreko egunetan baino dezente epelago. Min.5° / Max.13°
BIHAR Izotzak desagertuko dira erabat gure mendi bazterretan. Hegoak joko du bihar ere, eta lainoak bakantzen joango dira. Tenperaturak puntu bat beroago. Min.6° / Max.13° (euskalmet)

❖ BERTSOLATA



Xabier Erkizia, Judith Montero eta Maialen Lujanbio. (Argazkia: Argazki Press)

Bertsolata bete-betean... gaur, 'Ornitorrinkus', Milagrosan

Aste honetan eta hurrengoan, lau ekitaldi izango dira, Bertsolatan. Gaur CD berria aurkeztuko dute Erkizia, Montero eta Lujanbiok, 19:00etan.

ASTE honetan sartu da Bertsolata ekitaldi bete-betean. Gaur hasi eta errege eguna bitarte, 4 ekitaldi dituzte, Hernaniko Iraulio Panttalo-ne Bertso Eskolako kideek.

Gaur *Ornitorrinkus* ekitaldi esperimentalak izango da, Milagrosan, 19:00etatik aurrera. Ostegunean, web orrialde berria aurkeztuko dute, Biterin. Ostiralean, Urte Zaharretako Errondan ibiliko dira kalean barrena, Ohitura Zahar-rak Abesbatzarekin batean. Datorren astean, errege egunarekin, bertso jaialdia dute, Biterin, 6 bertsolari puntakorekin: Unai Iturriaga, Amets Arzallus, Miren Amuriza, Unai Agirre, Iker Zubeldia eta Asier Azpiroz.

Lan esperimentalak, gaur Bertsolatak ohitura duen modura, bertsoaren inguruan egiten diren lan bereziak ere ekarri nahi izaten dituzte Hernanira. Gaurkoa horietako bat izan liteke, eta gainera, bi

hernaniar dira protagonista. *Ornitorrinkus* izeneko CDa aurkeztuko dute Maialen Lujanbiok (bertsoa), Judith Monterok (saxoa) eta Xabier Erkiziak (musika elektroniko).

Lehendik ere bi emanaldi egin ditu hirukote honek Hernanin. 2007an hasi zuten ibilbidea, eta aurten kaleratu dute CD itxuran, ibilbide horren emaitza izan litekeena. Gaur, emanaldiaz gain, komentatu ere egingo dute euren lana. Bakoitzak bere esparruan bide berriak bilatu nahi izan ditu, eta *Ornitorrinkus* da horren emaitza. Aportazio berri bat, errez definitu ezin den emaitza bat, dena definitu edo sailkatu behar horretatik aldegin nahian, sortutako obra.

CDa salgai dago Hernanin, Doberan eta Kronikan, bazkideentzat 12 euroan; bazkide ez direnentzat 15 euroan.

Milagrosan da emanaldia, 19:00etan. Sarrerak bertan salduko dira, 5 euroan. II

BERTSOLATA EKITALDIAK

GAUR - ABENDUAK 28:

Ornitorrinkus:

CD aurkezpena: Maialen Lujanbio, Judith Montero eta Xabier Erkizia. 19:00etan Milagrosan. Sarrerak: 5 euro.

ABENDUAK 30:

Web gune berriaren aurkezpena: Hernani Bertsotan proiektuak bigarren zatia aurkeztuko du. DVDak salgai izango dira bertan. 19:00etan Biteri kultur etxean.

ABENDUAK 31:

Urte Zaharretako Erronda:

Kalez kale eskean ibiliko dira errondan, Ohitura Zahar-rak Abesbatzak antolatuta. 17:15etan abiatuko dira Plazatik.

URTARRILAK 6:

Bertso Jaialdia: Bertsolariak:

Amets Arzallus, Unai Iturriaga, Unai Agirre, Miren Amuriza, Asier Azpiroz eta Iker Zubeldia. Gaijartzailea: Amaia Otxotorena. Sarrerak salgai: Aralar eta Tripon-tzi tabernetan, 7 euroan.

❖ ARRAUN ELKARTEA

Gabonetako errifa saritua: 9.250

Hernaniko Arraun Elkarteko errifak badu zenbaki saritua.

Gabonetako Loteriaren azkeneko lau zenbakiek osatzen dute, hau da: 9.250. Saria Paul Urtiagaren familiari tokatu zaio. II

❖ SANTO TOMAS EGUNA

Santo Tomasetako zenbaki saritua: 6.216

San Joan Konpartsak ohi bezala ospatu zuen Santo Tomas eguna eta bertan errifak saldu zituzten. Zenbaki saritua 6.216a da. Jakinarazi dutenez, urtarilaren 2rako ez bada irabazlea azaltzen, berriz zozketatuko da. Zenbaki irabazlea urtarilaren 3ko itxuetako zenbaki sarituarekin aterako da. II

❖ ELUR TXORI

Mus Txapelketako zortzi partida, gaur

Elur Txori elkarteak mus txapelketa ari dira jokatzeko, eta gaur zortzi partida jokatu dira: Joxe-Manolo/Ramon-Peli; Xabier-Kijera/Rafa-Javi; Otegi-Burugain/Rober-Antonio; Iturriza-Esna/Diego-Iñaki; Gorka-Uriarte/Angel-Txemari; Artetxe-Aierdi/Alvaro-Pablo; Boti I-Boti II/Pottoko-Arraras; eta Pako-Biurrarena/Pako-Joxan. II

Eskelak

Eskalak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

I. URTEURRENA

Imanol Olazabal Etxabe

"Beti gure bihotzetan.
Maite zaitugu"

MANOLO, JOSUNE eta ANE

Hernanin, 2010eko abenduaren 28an

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Neska euskalduna sagardotegi denboraldian lan egiteko eskaintzen da: sagardotegitan, ostalaritza... Harremanetarako: 617 630 528
Pisu bat alokatzen dut Hernanin, Karmelo Labaka kalean. 2 gelakoa, kalefakzio indibidualarekin. Dotorea. 700 euro. Bankuko abala behar da. Tlf: 600609754
Emakume euskaldun bat behar dugu goizez, haurrak jeiki arazi, gosaria eman eta eskolara eramateko. Deitu: 661 679 700
ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
Enara Goikoetxea. Terapia energetikoak, Kristaloterapia, Flores de Bach, Masaje metamorfikoa, Reikia, Tarot terapeutikoa. Tlf.: 943-332894 - 649-700762. (Agustindarren plaza 4)
YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotodepilazio berria, prezio bereziak eta pertsonalizatuak. "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.
Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Brintza

Lan-Aholkularitza -
Fiskala -
Aseguruak Inbertsioak -
Zerbitzu Juridikoak -

www.brintza.com

Urbietza 15 - Hernani - Tel.: 943 331 267 - Faxa: 943 330 892

PROKOLOR ZENTRUA MARGOAK

Landaribar, s.l.

► Industria eta dekoraziorako pinturak
► Lurrak jartzen ditugu
► Pintatutako paperak

Kardaberaz 45
Tel.: 943 55 21 31

ITXASPE

Arrandegia

Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobi.: 653 74 10 97
20120 Hernani

Allianz

ASEGURUAK

bizitza -
istripuak -
ibilgailuak -
etxeak -
komertzioak -
enpresak -
ardura zibila -
finantz aseguruak -
inbertsioak -

**agustin ezponda irizar
agentzia**

Bulego berria:
Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71